

# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 3930

*EBAZPENA, 2024ko ekainaren 3koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Gorniz-Butroe 6. zirkuitua izeneko 13,2 kV-eko goi-tentsioko aireko linearen –Gorniz transformazioko eta banaketako azpiestazioaren eta 7926 euskarriaren artean, eta haren deribazioetan, Gorniz, Plentzia, Gatika, Maruri-Jatabe eta Lemoiz udalerrietan (Bizkaia)– zuhaitzik gabeko zerrenda zabaltzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena.*

#### AURREKARIAK

2023ko irailaren 28an, Eusko Jaurlaritzako Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak eskaera egin zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, Gorniz-Butroe 6. zirkuitua izeneko 13,2 kV-eko goi-tentsioko aireko linearen –Gorniz transformazioko eta banaketako azpiestazioaren eta 7926 euskarriaren artean, eta haren deribazioetan, Gorniz, Plentzia, Gatika, Maruri-Jatabe eta Lemoiz udalerrietan (Bizkaia)– zuhaitzik gabeko zerrenda zabaltzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua hasteko (aurrerantzean, IIE sinplifikatua), Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera. Proiektu hori I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk sustatua da.

2024ko martxoaren 1ean, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak dokumentazio gehigarria igorri zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, ingurumen-organoak 2023ko azaroaren 14an egindako errekerimenduari erantzuteko.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 46. artikulua betez, kontsulta-izapidea abiarazi zuen 2024ko martxoaren 20an, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko. Kontsulta-izapidea egiteko legez ezarritako epea bukatuta, zenbait txosten jaso dira, eta haien emaitzak espedientean daude jasota. Era berean, organo substantiboari jakinarazi zitzaion izapidea hasi zela.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egoki jotzen zituen oharrak egin ahal izateko.

Jarduketa horien emaitza aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-inpaktuaren txostena egiteko behar beste judizio-elementu, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 47. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, haren helburua da ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketan plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea; izan ere, horrela, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasagarria sustatzeko helburuarekin.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Kasu honetan, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 49. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar da, garatu nahi den proiektua otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I. eranskineko c) apartatuan, 7. epigrafean, jasota baitago: «Aurreko puntuetan aipatu ez arren lurzoruaren aprobetxamendu-motan aldaketa eragiten duten jarduerak, zuhaixka edo zuhaitzezko geruza deuseztatzen denean eta 5 ha eta 50 ha bitarteko azalera egiten direnean».

Ondorioz, abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoa betetzeko, ingurumen-organoak behar dena xedatu du Gorkiz-Butroe 6. zirkuitua izeneko 13,2 kV-eko goi-tentsioko aireko linearen – Gorkiz transformazioko eta banaketako azpiestazioaren eta 7926 euskarriaren artean, eta haren deribazioetan, Gorkiz, Plentzia, Gatika, Maruri-Jatabe eta Lemoiz udalerrietan (Bizkaia)– zuhaitzik gabeko zerrenda zabaltzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egiteko. Horretarako, kontsulta egin die eragindako administrazio publikoei eta interesdunei.

Txostenak jasotzeko xedatutako epea igaro ondoren, nahikoa judizio-elementu dituela iritzita, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen III. eranskinean ezarritako irizpideak kontuan hartuta, ingurumen-organoak osorik baloratu du proiektua, ingurumenaren gainean ondorio nabarmenak izateagatik ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaion zehazte aldera, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 47.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Bestalde, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 47. artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaionean, arauaren 47.2.a) artikuluan ezarritakoari jarraituz, ingurumen-organoak kontuan hartu beharko ditu 46. artikulua arabera egindako kontsulten emaitzak, eta ez da beharrezkoa izango kontsulta berriak egitea ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentua egiteko.

Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta proiektuaren ingurumen-dokumentua zuzena dela eta indarreko araudian ezarritako alderdiekin bat datorrela, ingurumen-inpaktuaren txosten hau egin du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, bera baita horretarako eskumena duen organoa, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) xedatutakoaren arabera. Txosten honetan, proiektuak ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzakeen edo ez aztertzen da, eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen eta, hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterlanaren irismen-dokumentua prestatzea bidezkoa den edota, bestela, zer baldintzatan garatu behar den proiektua, ingurumena behar bezala babesteko.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumen-inpaktuaren txostena egitea Gorliz-Butroe 6. zirkuitua izeneko 13,2 kV-eko goi-tentsioko aireko linearen –Gorliz transformazioko eta banaketako azpiestazioaren eta 7926 euskarriaren artean, eta haren deribazioetan, Gorliz, Plentzia, Gatika, Maruri-Jatabe eta Lemoiz udalerrietan (Bizkaia)– zuhaitzik gabeko zerrenda zabaltzeko proiekturako, eta zehaztea proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaiola, ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzakeelako, jarraian azalduko diren arrazoiengatik.

## A) Proiektuaren ezaugarriak.

Proiektuaren helburua da Gorliz-Butroe 6. zirkuitua izeneko 13,2 kV-eko goi-tentsioko aireko linearen –Gorliz transformazioko eta banaketako azpiestazioaren eta 7926 euskarriaren artean, eta haren deribazioetan, Gorliz, Plentzia, Gatika, Maruri-Jatabe eta Lemoiz udalerrietan (Bizkaia)– zuhaitzik gabeko zerrenda zabaltzea. Goi-tentsioko aireko linea elektrikoak zuhaitzetatik igarotzeko berariazko preskripzioak ezartzen dituen Energia eta Meategien zuzendariaren 2011ko martxoaren 8ko Ebazpenean oinarritzen da zabaltzea. Horrela, linea elektrikoaren eroaleek zuhaitzen adarrak edo enborrak ukitzearen ondoriozko zerbitzu-eteak eta suteak saihesteko, zuhaitzak mozteko eremu bat eraikiko da bigarren kategoriako (13,2 kV) goi-tentsioko linea elektrikoaren bi aldeetan, gehieneko hazkundean, okerrenera, linea elektrikoaren eroaleetatik bi metro baino gutxiagora gera daitezkeen baso eta zuhaitzi-masetatik igarotzean.

Linearen euskarriak hormigoi, metal eta altzairu-saretazkoak dira. Eroaleak D-40, D-56 eta LA-56 motatakoak dira.

Ingurumen-dokumentuaren azken bertsioaren arabera, linea elektriko nagusiaren eta eragindako deribazioen trazadurak 13.309,79 metroko luzera du guztira, eta, horietatik, 10.309,79 metro zuhaitzetatik igarotzen dira. Proiektuaren memoriaren arabera, aldiz, 13.660 metroko luzera du guztira, eta 11.029 metro zuhaitzetatik igarotzen dira. Bestalde, shape formatuko kartografiaren arabera, linea elektriko nagusiaren eta eragindako deribazioen trazadurak 13.790 metroko luzera du guztira, eta horietatik 10.405 metro zuhaitzetatik igarotzen dira.

Ingurumen-dokumentuaren arabera, lurzoruaren erabilera aldatu egingo da 95.715 m<sup>2</sup>-ko azalera, eta azalera hori linea elektrikoaren babes-eremuaren parte izango da. Azalera horretatik, mozketa-/inausketa-lanek eragindako azalera osoa 56.184 m<sup>2</sup>-koa izango da.

Errepide-sarearekin, sare hidrografikoarekin, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoarekin eta Onura Publikoko Mendiekin gurutzaketak edo paralelismoak daude; 0,002 kilometrokoak, 1,006 kilometrokoak, 1,135 kilometrokoak eta 0,371 kilometrokoak, guztira, hurrenez hurren.

Gauzatu nahi den proiektuak aireko 13 gurutzaketa eta 12 paralelismo ditu Jabari Publiko Hidraulikoarekin (JPH) eta Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoarekin (ILJP), eta Butroe eta Zuzentze ibaien, Mixerreka erreka eta Mesula eta Ugarte jariatzeen eta izenik gabeko beste batzuen zortasun-eremuko landarediari eragiten dio.

Onura publikoko mendi bat dago aurreikusitako jarduketaren eremuan, eta 5.640 m<sup>2</sup>-ko azalera eragiten diote aurreikusitako mozketa-lanek. Gainera, baso-lurrean aurreikusitako mozketak 43.316 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen du.

Proiektatutako jarduketak gauzatzeak berekin ekarriko du, hala badagokio, sarbideak irekitzea, makinaren joan-etorria, linea elektrikoaren zortasun-zerrendako landaredia moztu edo inautzea eta sortutako baso-hondakinak kudeatzea.

Makinak proiektatutako mozketa-eremuetara sartzeko, lehendik dauden sarbideak erabiliko dira; hala ere, ezinezkoa bada, linearen segurtasun-eremua aprobeztatuz landan zehar egingo da.

Lanak egiteko epea hiru hilabetekoa izango da.

Proiektuaren helburua ezarritako erregelamenduzko xedapenak betetzea denez, eta lehendik dagoen linea elektriko baten gainean jarduten denez, ez da hura garatzeko alternatibarik planteatzen.

B) Proiektuaren kokapena.

Trazadura eta deribazioak Bizkaiko 5 udalerrri hauetatik igarotzen dira: Gorniz, Plentzia, Gatika, Maruri-Jatabe eta Lemoiz. Trazadura zuzena du, 13,79 km-koa, eta horietatik 10,41 km zuhaitzirik igarotzen dira.

Trazadura Butroe ibaiaren arrotik igarotzen da, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren barnean dagoena. Jarduketaren xede den linea elektrikoak Butroe ibaia hainbat aldiz zeharkatzen du, baita haren ibaiadar batzuk ere. Landaredia kentzeko jarduketa batzuk jabari publiko hidraulikoan daude, eta beste batzuk, berriz, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan eta bere zortasun-eremuan.

Linearen eta haren deribazioen luzera dela eta, instalazioan iragazkortasun desberdineko tipologia litologiko ugari identifikatu dira. Era berean, akuiferoak kutsatzeko arrisku batez beste oso txikia edo hautemanezina duten lurzoruak identifikatzen dira, eta azken horiek trazaduraren ekialdean dauden gune jakinetara mugatzen dira.

Jarduketak Bizkaiko sinklinorioko eta iparraldeko antiklinorioko lurpeko ur-masen gainean egingo dira. Lurpeko ur-masen bi sektoreri eragiten die jarduketa-eremuak, hala nola Jata-Sollube kuaternarioari eta Getxo-Bergara kuaternarioari. Linea elektrikoaren trazaduraren zati handi bat interes hidrogeologikoko kokapenetan dago.

Aurreikusitako jarduketak Uribe-Kosta-Butroe eremuko natura-baliabideak antolatzekeo plana idazten hasteko Agindutik eratorritako prebentzio-erregimenaren mende dagoen gunean egin nahi dira (Agindua, 2012ko irailaren 3koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Uribe-Kosta-Butroe eremuko natura-baliabideak antolatzekeo plana egiteko prozedurari hasiera ematen diona).

Intereseko naturaguneei dagokionez, Butroeren edo Plentziako itsasadarra hezeguneein inbentarioan (A1B2 kodea) eta naturagune garrantzitsuen katalogo irekian (09 kodea) sartuta dago.

Era berean, Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregimarekin bat etorriz, Butroeren itsasadarra «mantenugaien ekarpenarekiko sentikorra den eremua» eta «interes ekonomikoko espezieak (moluskuak eta beste ornodun batzuk) babesteko eremua» da.

EAEko azpiegitura berdeari dagokionez, Plentziako itsasadarra biodibertsitatearen erreserba gisa sartzeko da, eta Butroe ibaia bilbe urdin gisa.

Jarduketa-eremuaren zati txiki batek onura publikoko mendi bat ukitzen du (189 kodea).

Fauna mehatxatuari dagokionez, eremuko ibilgu guztiak bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremuak dira, espeziearen kudeaketa-planaren arabera.

Butroe ibaiaren ibarrean, gainera, apoarmatu autoktonoen kolonia garrantzitsu bat dago: apoarmatu korrontezalea (*Mauremys leprosa*) eta apoarmatu istilzale (*Emys orbicularis*) (bi espezie horiek kaltebera gisa katalogatuta daude EMEAn).

Era berean, kontuan hartu behar da Butroe ibaiaren arro honetan igaraba (*Lutra lutra*) dagoela.

Trazaduraren zati handi bat bat hegaztiak ez elektrokatuzeko babes-eremuaren barruan dago (Kosta-Plentzia-Bolue-Lemoiz-Jata sektorea). Agindu honen bidez deklaratu zen eremu hori: Agindua, 2016ko maiatzaren 6koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena. Honen bidez, arriskuan dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta abifaunaren babes-eremuak argitaratzen. Zehazki, abifauna babesteko baldintza teknikoekin bat ez datozen tartek hauteman dira linea elektrikoaren trazaduran. Aipatu eremuetan, goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokatuzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko dira, abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuari jarraikiz (abifauna goi-tentsioko linea elektrikoetan ez elektrokatuzeko edo talka ez egiteko neurriak ezarzen dituen).

Jarduketaren eremuak ez du ukitzen Natura 2000 Sareko eremurik. Igarobide ekologikoen sareko elementurik eta interes geologikoko lekurik ere ez da aurkitu.

Dagoen landaredia kontuan hartuta, linea elektrikoak zenbait habitat zeharkatzen ditu, hala nola baso autoktonoak, belardi naturalak, soro landuak edo baso-sailak, besteak beste. Batasunaren intereseko habitat ugari identifikatu dira; horien artean, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak (HIC 91E0\*), *Sarcocornia perennis* espezieko padurak (BIH 1420) eta artadi kantauriarra (BIH 9340) nabarmentzen dira. Geoeuskadin eskuragarri dagoen informazioaren arabera, proiektua bat dator Butroeko estuarioan dagoen *Apium graveolens ssp. butronensis* flora espezie mehatxatua berreskuratzeko eta kontserbatzeko eremuekin.

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera, trazadura Basogintza, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Trantsizioko landa-paisaia eta Nekazaritza nahiz Abeltzaintzako Balio Estrategiko Handia kategorietako lurzorua hartzen ditu barne. Hezeguneen LPSaren arabera, Butroe itsasadarraren ertzak, non mozketak aurreikusten diren, babes bereziko eremu eta ekosistemak hobetzeko eremu gisa identifikatzen dira.

Kultura-ondareari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenaren arabera, proiektuaren eremuan interes arkeologikoko bi elementu daude: Mandañuko (Gorliz) kokaguneko balizko arkeologia-guneak eta Burdin Gerrikoaren zati bat (Lemoiz).

Ingurumen-arriskuei dagokienez, lineak Butroe ibaiak eragindako uholde-arriskua duten eremuak zeharkatzen ditu, eta aurreikusitako jarduketak 10, 100 eta 500 urteko uholde-arriskua duten eremuetan eta lehentasunezko fluxu-eremuan kokatzen dira. Zuhaitzik gabeko zerrenda zabalatzeko lanen eremuan ez dago lurzoru kutsa dezaketean jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzatirik.

C) Balizko inpaktuaren ezaugarriak.

Proiektutik eratorritako inpaktu nagusiak obra-fasean gertatuko dira, makinen joan-etorriaren eta sarbide berriak irekitzearen ondorioz lurzoru okupatzeagatik. Era berean, proiektatutako jarduketek zenbait zuhaitz-ale zuzenean kentzea eta intereseko fauna-habitatei eta haien konektagarritasun ekologikoari eragitea ekarriko dute. Hori horrela, aurreikutzeko dokumentazioarekin bat etorritik, ingurumen aldetik sentikorak diren zonetan ahalik eta eragin gutxien ekarriko duten mozketetarako irizpideak hartuko dira, eta jarduketaren eremuetarako sarbidea, ahal den neurrian, dauden bideetatik edo korridoretik egingo da.

Egin behar diren inausketa/mozketa jardueren ondorioz, makinen joan-etorriek eta erabilerak kalteak eragingo dituzte, hala nola hots-kutsadura, airearen kutsadura, lurzorua trinkotzea, landaredia eta fauna suntsitzea edo aldatzea, isurketa posibleen ondorioz ura eta lurzorua kutsatzea, inausketako hondakinak sortzea eta abar. Era berean, ingurunearen paisaia-kalitatea murriztuko da.

Gainera, kontuan izan behar da proiektuaren eremuak Butroe itsasadarra ukitzen duela, eta, beraz, Batasunaren intereseko habitatei eta mehatxatutako flora- eta fauna-espezieei eragin diezaiekeela. Hala, proiektuak jabari publiko hidraulikoko eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko eremuetan landaredia kentzeko jarduketak dakartza.

Alderdi horiei dagokienez, espedientean jasota dago Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostena. Horren arabera, eremuan dauden landarediari eta habitatei buruzko azterketa osatu behar da, moztu behar den landarediaren aurreikuspen doitua eduki ahal izateko (kontuan hartuta inausketek ez dutela zertan arriskuan jarri aileen bideragarritasuna, baldin eta ondo exekutatuta badaude). Hala, lehenik, azalera, formazio mota eta kontserbazio-egoera zehaztuko dira, sortutako inpaktuaren irismena eta magnitudea zehatz-mehatz zehaztu ahal izateko, eta, bigarrenik, hari egokitutako konpentsazio-neurriak.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren txostenen arabera, Uribe-Kosta-Butroeko Natura Baliabideak Antolatzeako Planaren prebentzio-erregimena aplikatuz (Hezeguneen LPSak babestutako eremuarekin eta *Apium graveolens ssp. butronensis* berreskuratzeko eremuekin bat dator), Butroe ibaiaren estuarioko linea-tarteen azpiko zerrendak ezingo dira zabaldu, eta, beraz, Isuskitzako meandroaren ingurune osoa esku hartu gabe utzi beharko da, Arbinako presatik 7727 euskarrira arte, gutxienez.

Bestalde, *a priori* ez da lur-mugimendurik aurreikusten; hala ere, eremuan interes arkeologikoko elementuak daudela kontuan hartuta, horiek ez kaltetzeko neurri egokiak hartu beharko dira.

Nabarmendu behar da linea elektrikoak eragina izan dezakeela bereziki abifaunan, linea elektrikoarekin gerta daitezkeen talken edo elektrokuzioen ondorioz; izan ere, ez da egokitzen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan (Goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan abifauna talken eta elektrokuzioen aurka babesteko neurriak ezartzen dituen) ezarritako preskripzio teknikoetara.

Bigarrena.– Aipatutako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismenari buruzko dokumentua prestatzea, ebazpen honen I. eranskinean adierazten den moduan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukiaren berri ematea Eusko Jaurlaritzako Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 3a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO,

## ERANSKINA

1.– Irismen-dokumentua: ingurumen-inpaktuaren azterketaren hedadura, xehetasun-maila eta zehaztasun-maila.

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudiaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketak bete egin beharko ditu, gutxieneko edukiei eta egiturari dagokienez, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 35. artikuluan eta VI. eranskinean xedatzen dituenak.

Aurrekoari jarraikiz, garatzen diren atalek eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1.– Proiektuaren deskribapen orokorra eta lurzorua eta beste natura-baliabide batzuek etorkizunean izango duten erabileraren aurreikuspena. Sortuko diren hondakin mota eta kopuruen, material-isurien eta -emisioren eta energiaren zenbatespena.

2.– Aztertutako aukera nagusiak azaltzea, zero aukera barnean hartuta (proiekturik ez egitea, alegia), eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusiak justifikatzea, proiektuak eragindako ingurumenaren gaineko ondorioak kontuan hartuta.

3.– Ingurumen-inbentarioa eta elkarreragin ekologiko edo ingurumen-elkarreragin garrantzitsuenen deskribapena.

4.– Inpaktua identifikatzea, kuantifikatzea eta neurtzea: ebaluatuko da ea zer-nolako eragina izan dezakeen proiektuak, zuzenean nahiz zeharka, biztanlerian, giza osasunean, floran, faunan, biodibertsitatean, geodibertsitatean, lurzoruan, zorupean, airean, uretan, faktore klimatikoetan, klima-aldaketan, paisaian eta ondasun materialean (ondare historiko-artistikoa eta arkeologikoa barne), ingurumenaren gaineko ondorioak kontuan hartuta. Halaber, arreta jarriko zaio faktore guztien arteko interakzioari, proiektua egikaritu, ustiatu eta, hala badagokio, eraitsi edo bertan behera uzteko fase guztietan gertatuko denari.

5.– Proiektuaren kalteberatasuna. Istripu larri edo hondamendi garrantzitsuren bat gertatzeko arriskuarekiko kaltebera izatearen ondorioz proiektuak ingurumenean sor ditzakeen kontrako efektu nabarmenen deskribapena.

6.– Ingurumenean eragiten diren ondorio kaltegarriak prebenitu, zuzendu, eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusi diren neurriak.

7.– Ingurumena zaintzeko programa.

8.– Azterlanaren laburpena eta ondorioak, erraz ulertzeko moduan. Azterketa egitean izandako informazio- edo teknika-zailtasunen txostena, zailtasunik izan bada.

Proposatzen diren jarduketan eta ziurrenik kalteak jasango dituen ingurunearen ezaugarriak direla eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen-inpaktuaren azterketan aipatutako atalak garatu beharko dira, ondoren adierazitako hedadurarekin eta xehetasun-mailarekin.

1.1.– Proiektuaren deskribapena eta proiektuko ekintzak.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak xehetasun-maila nahikoa duen proiektuaren deskribapena izan behar du barne, baita denborarekin aurreikus daitezkeen beharren azalpena ere, lurzorua eta bestelako natura-baliabideen erabilerari dagokionez.

Ildo horretan, proiektuaren memoriaren eta ingurumen-dokumentuaren artean linearen luzerari eta eragindako azalerari dagokienez dauden inkongruentziak zuzendu beharko dira. Proiektuaren deskribapenak bat etorri behar du proiektuaren memorian eta ingurumen-inpaktuaren azterketan.

Halaber, jardueren ondorioz sortuko diren materia- edo energia-hondakin, isuri eta emisioen mota eta kopurua kalkulatu behar ditu, eta, zehazki, ingurumen-baldintzetan eragin garrantzitsuak izan ditzaketen ekintzak identifikatu behar ditu azterketa xehatu baten bitartez, bai exekuzio fasea bai funtzionamendu fasea aintzat hartuta.

Ingurumen-inpakturen bat izan dezaketen proiektuko ekintza guztiak identifikatu behar dira, babes- eta zuzenketa-neurri egokienak hartzen direla bermatze aldera.

Saihestu eta zuzendu nahi diren kalteak, bai proiektuak proposatutako jarduketatik beretik, bai berezkoak zaizkion jarduera osagarri guztietatik etor daitezke, besteak beste, honako hauetatik: lehengo sarbideak egokitzetik, eta obrarako instalazio lagungarrietarako eta erabiliko diren materialak edo makinak metatzeko eremu lagungarrien kokapen eta erabileragatik.

Jarduketa horiek guztiak xehetasun-maila nahikoarekin definitu beharko dira, proiektua gauzatzeko ingurumenean izan litzakeen ondorioak kalkulatzeko eta prebentzio- eta zuzenketa-neurri egokiak diseinatu ahal izateko, hartara hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatuta.

Aurrekoa kontuan hartuz, eta ebaluatzen ari den proiektuaren ezaugarriak ikusita, xehetasunez azaldu beharko dira alderdi hauek, besteak beste:

- Proiektuaren eraginpeko eremuaren kokapena eta mugaketa: zortasun-zerrenda berria eta obraren aldi baterako okupazio-eremuak zehaztea.
- Mozketak, sasi-garbitzeak eta inausketak egiteko aplikatu beharreko metodologia deskribatzea, eta haietako bakoitzaren eraginpean dauden gainazalak bereiztea.
- Sarbideak: obretara sartzeko aurreikusitako bideen xehetasunak, lehendik daudenak izan edo berriak izan.
- Obrako instalazio osagarriak kokatzea eta zehaztea.
- Hondakinak: aurreikusitako hondakinak identifikatzea, metatzeko eremuak eta haien kudeaketa. Landare-hondakinak kaletik nola kenduko diren zehaztuko da.
- Obrarako aurreikusitako makineria.
- Obren aurreikusitako iraunaldia eta obra-plana (faseetako bakoitzaren zenbatetsitako iraunaldia, halakorik balego).

Atal honetako informazioarekin batera, proiektuaren eskalako planoak aurkeztuko dira, edukia hobeki ulertu dadin. Proiektuaren ezaugarriei buruzko bestelako informazio grafiko posibleaz gain, honako plano hauek aurkeztu beharko dira:

- Linea elektrikoaren trazadura eta luzetarako profila. Zabaltzearen zortasun-eremua.
- Gune osagarrien eta sarbideen kokapena.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren txostenen arabera (espedientean jasota daude), Uribe-Kosta-Butroeko Natura Baliabideak Antolatze Planaren prebentzio-erregimena aplikatuz (Hezeguneen LPSak babestutako eremuarekin eta *Apium graveolens ssp. butronensis* berreskuratze eremuekin bat dator), Butroe ibaiaren estuarioko linea-tarteen azpiko zerrendak ezingo dira zabaldu, eta, beraz, Isuskitzako meandroaren ingurune osoa esku hartu gabe utzi beharko da, Arbinako presatik 7727 euskarrira arte, gutxienez. Ildo horretan, proiektua berrikusi beharko

da, Isuskitzako meandroaren inguru osoa mozketa-eremuetatik kanpo uzteko, Arbinako presatik 7727 bermera arte gutxienez.

### 1.2.– Aukeren azterketa eta hartutako irtenbidearen justifikazioa.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak barne hartu behar du ingurumenerako egokien diren hautabide teknikoki bideragarrien azterketa, eta horien konparaziozko balorazioa egin behar du, zero hautabidea edo ez jardutekoa barne. Proposatutako soluzioa justifikatu beharko da, eta jarduketaren dimentsioari eta hedadurari ez ezik, aipamena egin beharko die dauden soluzio tekniko guztiei ere.

Aukerarik onena hautatzeko, askotariko irizpideak jasotzen dituen azterketa global bat egingo da, alderdi ekonomikoak ez ezik, gizarte- eta ingurumen-alorrak ere aintzat hartuta.

Aukeren balioespen-prozesu horretan, aintzat hartuko dira hainbat alderdi, esaterako, Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak dauden ala ez, mehatxupean dauden flora- eta fauna-guneak eta naturagune eta ondare kulturalaren gaineko eragina.

Azterlanak hainbat soluzio proposatu behar ditu, hala teknikoak nola eraikuntzakoak, ingurunearen osagai baliotsuenen gaineko eragina minimizatzeke; hau da, funtsean, proiektuaren garapen-eremuan dagoen landaredi naturalaren, mehatxupeko fauna eta floraren eta kultura ondarearen gainekoa.

Atala bukatzeko, hautatutako aukera justifikatu beharko da, eta, nolana ere, bermatu egin beharko da hautatutako soluzioa teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela, eta ingurumenaren ondare- eta ingurumen-osagaiei ahal bezain kalte txikiena eragiteko ahalegina egin beharko da.

### 1.3.– Ingurumen-inbentarioa eta elkarreragin ekologiko edo ingurumen-elkarreragin garrantzitsuenen deskribapena.

Atal honetan, eremua deskribatuko da, osagai baliotsuenak eta proiektuko ekintzen eragina gehien jasan dezaketenak nabarmenduta. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin bat etorritik, jarduera egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-baldintzak aztertuko dituen txostena ere izan behar du, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera konparatzeko azterlan bat ere.

Ingurumen-inbentarioa atalez atal baloratuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia-esparru baten barnean (herri mailan, eskualdekoan eta abar).

Kasu guztietan, datuak eskuratzeko iturri dokumentalak adieraziko dira, material bibliografikoak izan, edo norberak prestatuak edo bestelakoak.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren azalpena modu laburrean egingo da, ingurumen-inpaktuaren azterketaren ikuspuntutik ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak saihestuz, eta proiektuak ingurumenean izan litzakeen eraginak ulertzeko behar dena kontuan hartuz.

Jarduketa-eremuaren ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografikoak lortu beharko dira, hala eskala orokorrean nola xehatuan, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko da.

Ezertan eragotzi gabe aurretik esandakoa, proiektuaren eragin-eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak alderdi hauek jorratuko ditu:

Eremu horretan dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena.

Atal horretan, eraginpeko komunitateak identifikatu, eta honako hauek adieraziko dira: kontserbazio-maila, egiturazko konplexutasuna, espezie bereizgarri, enblematiko edo adierazgarriak, etab. Kontuan hartuko da, bereziki, Batasunaren intereseko habitatak eta espezie mehatxatuak dauden, eskualde mailan, Espainia mailan, Europa mailan nahiz nazioartekoan.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak xehetasunez zehaztuko ditu, azterketa zehatz baten bidez, proiektuaren jarduerak eragindako intereseko habitat bakoitzaren eta landaredia autoktonoen masen azalera, haien osaera, kontserbazio-egoera eta balio ekologikoa.

Ilido horretan, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenaren arabera, ingurumen-inpaktuari buruzko azterketan, eremuan dauden landarediari eta habitatei buruzko azterketa osatu behar da, moztu eta inausi behar den landarediaren aurreikuspen doituia eduki ahal izateko. Hala, lehenik, azalera, formazio mota eta kontserbazio-egoera zehaztuko dira, sortutako inpaktuaren irismena eta magnitudea zehatz-mehatz zehaztu ahal izateko, eta, bigarrenik, hari egokitutako konpentsazio-neurriak.

Proiektuaren eremuan, nabarmentzekoa da Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 1. eranskinean jasotako habitatak daudela (zuzentarau hori habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa da), bai eta baso naturalak ere (harizti azidofiloak, baso misto atlantikoa). Horiek, Batasunaren intereseko habitatak ez badira ere, kontserbatu egin behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Era berean, kontuan hartuko dira Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren 2024ko apirilaren 22ko txostenean eta Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren 2023ko maiatzaren 30eko txostenean adierazitako oharrak.

Inpaktua behar bezala ebaluatzeko eta babes- eta zuzenketa-neurri egokiak ezartzeko, kartografia xehean zehaztu beharko dira Batasunaren intereseko habitaten banaketa, bertako baso-komunitateak eta mehatxatutako espezieentzat interes berezikoak diren guneak, proiektuaren eraginpeko eremuan, sarbideak barne, hala badagokio.

Eremu katalogatuak.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak proiektuak natura-ondarearen ikuspegitik sentiberak diren eremuekin duen elkarrengana aztertu beharko du. Bereiziki, jarduketan eta eremu hauetan aplikatu beharreko araudiaren arteko bateragarritasuna ziurtatu beharko da:

- Plentziako itsasadarreko A1B2 hezegunea, EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) II. taldean sartuta dagoena.
- Uribe-Kosta-Butroe eremuko natura-baliabideak antolatzeke plana idazten hasteko Agindutik eratorritako prebentzio-erregimenaren mendeko gunea.
- Bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremuak, Bizkaian onartutako espeziearen kudeaketa-planaren arabera.
- EAEko Azpiegitura Berdea (2019ko LAG): Plentziako itsasadarra biodibertsitate-erreserba gisa sartzan da azpiegitura horretan.
- Mehatxatutako *Apium graveolens ssp. butronensis* flora-espeziea kontserbatzeko eta berreskuratzeko eremuak, EAEn mehatxatutako flora kontserbatzeko dokumentu teknikoaren arabera (2011).

Igarobide ekologikoak. Habitaten konektagarritasuna/zatiketa.

Horri dagokionez, ingurumen-inpaktuaren azterlanak lurraldearen konektibitate ekologikoari dagokionez proiektuaren eragina aztertu beharko du, eta, hala badagokio, behar diren prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatu beharko ditu.

Geologia eta geomorfologia.

Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologikoak eta geomorfologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak. Interes geologiko/geomorfologikoa duten leku, eremu eta ibilbideen identifikazioa.

Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia.

- Akuiferoen kalteberatasuna. Kalteberatasun handiko guneak, birkarga-guneak, hustutegiak eta abar identifikatzea, halakorik badago, eta gune horien eta proiektuaren arteko erlazioa.
- Ur Sarearen ezaugarriak. Aldi baterako ur-ibilguen, ur-ibilgu iraunkorren eta instalazioaren elementu guztien artean dauden elkarreraginak adieraziko dira.

Paisaia.

Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, bereziki xehea izan behar du linea elektrikoaren eta zuhaitzik gabeko zerranda zabaltzearen ikusizko eraginaren ebaluazioak, eta gaur egungo egoera eta etorkizunekoa (proiektua gauzatu ostekoa) konparatu beharko ditu. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Jarduketaren ikusgaitasuna ikuseremuaren zenbait gunetatik, ibilienak eta paisaiaren kalitate handiena dutenak lehenetsita, eta gaur egungo egoera eta etorkizunekoa konparatuz. Hori horrela, kontuan hartuko da, bereziki, linea elektrikoaren aldaketak Gorbeia KBEaren inguruan eta Baia ibaian izango duen eragina.
- Kalitatea.
- Kalteberatasuna.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketak zehaztu beharko du proiektuaren eremuan identifikatu diren eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak dituzten lurzatietan izango duen eragina.

Ondare historikoa, artistikoa eta kulturala

Ingurumen-inpaktuaren azterketak kontuan hartu behar du proiektuaren afekzio-eremuan dauden kultura-ondareen gain eragin daitekeen kaltea. Ondasun horiek identifikatzeko, kontuan hartuko dira inbentario hauek: Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusia eta Arkeologia Ondarearen Inbentarioa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarenak biak ala biak, eta beste erakunde batzuetan (foru-aldundiak, udalak eta beste batzuk) dauden inbentarioak.

Era berean, kontuan hartu beharko da Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2024ko apirilaren 15ean egindako txostena, non baieztatzen baita jarduketa-eremuan interes arkeologikoko bi elementu daudela (balizko arkeologia guneak, besteak beste, Mandañuko kokagunea, 6. eremua, eta Burdin Gerrikoaren zati bat).

Dokumentazio grafikoa.

Atal honetan, irudikapen kartografikoak sartu beharko dira (pdf formatuan eta geoerreferentziatuta; alegia, pdf-ek eremuaren koordenatuak jaso beharko dituzte UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema ofizialean), bai eskala orokorrean bai xehetasunezkoan, jarduketaren eremuko ingurumen-inbentarioko alderdi garrantzitsuenen ingurukoak, kasu bakoitzean erabilitako eskala adierazita. Besteak beste, plano hauek hartuko dira barne: Batasunaren intereseko habitaten mugaketa kartografikoaren planoak, intereseko florarako eta faunarako garrantzitsuak diren eremuenak, eta proiektuaren eraginpeko eremuan dauden kultura-ondareko elementuenak.

Halaber, sintesi kartografia bat prestatuko da ingurumen inbentarioko elementu nabarmenak bertan jasoz.

#### 1.4.– Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa.

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioko elementuen eta inpaktuak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakziotik sortuko dira. Kaltearen garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka eragingo dien baliabideen kalitatea eta kantitatea. Obra fasean eta funtzionamendu fasean eragindako inpaktuak bereiziko dira.

Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta, horretarako, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu honetan, funtsean, egungo egoera eta etorkizuneko konparatuko dira, zuzenketa-neurriak kontuan hartuta.

Ingurumen-inpaktuak baloratzeko erabilitako zenbateste-prozesuak eta metodologiak aipatuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartutako arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren arabera muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Inpaktuen balorazioak kontuan hartuko ditu proiektutik eratorritako jarduketak guztiak, baita, hala badagokio, aldi baterako sarbideak, instalazio osagarriak, hondakinen bilketa eta abar gauzatzea ere.

Bereziki, eta besteak alde batera utzi gabe, kontuan hartuta proiektuaren ezaugarriak eta eragindako ingurunearenak, ingurumen-inpaktuaren azterlanak bereziki baloratu beharko ditu ingurumen-inpaktu hauek: natura-baliabideei erasan diezaieketenak, Batasunaren intereseko habitatak, bertako landaredi naturala eta intereseko flora eta fauna espezieak, abifauna eta kiropteroak barne; espezie horietako populazio edo aleei, horien umatze-tokiei edo egontokiei sortutako eragozpenekin lotutakoak; eta linea elektrikoaren elektrokuzio- edo talka-arriskuarekin lotutakoak. Era berean, garrantzitsutzat jotzen dira sare hidrológicoan eta lurrazaleko uren kalitateak, kultura-ondareak –kultura-balio handiko elementuetan izan dezakeen eraginagatik– eta paisaiak –naturaltasun eta paisaia-kalitate handiko eremuetan izan dezakeen eraginagatik– pairatu ditzakeen ondorioak.

Proiektuaren eraginpeko azalerak identifikatuko dira, mozteko eta inausteko azalerak bereiziz, eta habitat mota eta haren kontserbazio-egoera hartuko dira kontuan, sortutako inpaktuaren irismena eta magnitudea eta hari egokitutako konpentsazio-neurriak zehatz-mehatz zehaztu ahal izateko.

#### 1.5.– Babestutako eta katalogatutako eremuei eragina.

Aurreikusitako zuhaitzik gabeko zerrenda zabalduak natura-ondarearen ikuspegitik sentiberak diren hainbat eremu ukitzen ditu: Plentziako itsasadarreko A1B2 hezegunea, EAEko Hezeguneen

Lurralde Plan Sektorialaren II. taldean sartuta dagoena; Uribe-Kosta-Butroe eremuko natura-baliabideak antolatzeko plana idazten hasteko Agindutik eratorritako prebentzio-erregimenaren mendeko gunea; bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremuak, Bizkaian onartutako espeziearen kudeaketa-planaren arabera; eta EAeko Azpiegitura Berdeko (2019ko LAG) Plentziako itsasadarra biodibertsitate-erreserba.

Hala, ingurumen-inpaktuaren azterketak aipatutako eremuen gaineko eragina aztertu beharko du, eta ziurtatu beharko du jarduketak bateragarriak direla eremu sentibera bakoitzean aplikagarria den araudiarekin.

Ildo horretan, kontuan hartu behar da Hezeguneen LPSak Plentziako itsasadarreko hezegunearen erabilera antolatzen eta erregulatzen duela, eta ez dela kontuan hartu ingurumen-dokumentua aztertzean. Zehazki, EP-4 Palados, MA1-6 Isuskiza eta MA1-7 Arbina eremuetan mozketak egitea aurreikusten da.

Eremu horietan debekatuta daude mozketak eta inausketak, 3. LPSaren 12. artikuluan jasotako erabilera-erregulazioaren arabera; beraz, ez dira egin behar. Era berean, ez da onargarria ibilgai-luek eremu horietan zirkulatzea, eta, beraz, sarbideak oso mugatuta egongo lirarteke.

Gainera, gutxi gorabehera 7728 eta 7501 bermeen artean dagoen meandroaren tarte osoan, *Apium graveolens ssp. butronensis* flora-espezie mehatxatua kontserbatzeko eta berreskuratzeko eremuak definitu dira, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak EAEn flora mehatxatua kontserbatzeko eskatutako dokumentu teknikoaren arabera (2011). Aipatutako espeziea (mehatxatutako espezieen EAeko katalogoan galzoriko espezie gisa katalogatua) berreskuratzea ez eragozteko, eremu horretarako sarbideak saihestu behar dira.

Azkenik, ingurumen-dokumentuak ezartzen duenez, Uribe-Kosta-Butroeko Natura Baliabideak Antolatzeko Planaren prebentzio-erregimena aplikatuz, «Butroe ibaiaren estuarioko lerro-tarteen azpiko zerrendak ezingo dira zabaldu (ETRS89 huso 30 koordinatuen hasierako puntutik –X:506.678, Y:4.804.764– amaierako puntura –X: 506.509, Y: 4.803.097–, Arbinako presa). Neurri hori ez da jasotzen ingurumen-dokumentuaren 7. apartatuan, baina, aplikatzen bada, ez da esku-hartzerik izango Hezeguneen LPSak babestutako eremuan eta *Apium graveolens ssp. butronensis* espeziea berreskuratzeko eremuetan, eta, beraz, ezinbestekoa da aplikatzea. Beraz, ingurumen-dokumentua eta proiektua bera berrikusteko eskatzen da, Isuskitzako meandroaren inguru osoa mozketak-eremuetatik kanpo uzteko, Arbinako presatik 7727 euskarrira arte gutxienez.

Azterketa hori osatzeko, kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren 2024ko apirilaren 22ko txostenean eta Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 2023ko maiatzaren 30eko txostenean adierazitako oharrak.

#### 1.6.– Proiektuaren kalteberatasuna.

Istripu larriak edo hondamendi handiak gertatzeko arriskua dela eta proiektuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio kaltegarrien deskribapena, azterketa eta, hala badagokio, kuantifikazioa egingo da, baita istripu edo hondamendi horiek gertatzeko arriskuari buruzkoak ere. Helburu hori lortze aldera, proiektuari aplikatu beharreko araei jarraituz egindako arrisku-ebaluazioen bitartez lortutako informazioa erabili ahal izango da.

Horrelako ezbeharrek ingurumenean sortzen dituzten kalte adierazgarriak prebenitzeko eta arintzeko aurreikusitako neurri guztiak bildu behar dira deskribapenean, baita halako larrialdietarako proposatzen diren prestakuntzari eta erantzunari buruzko xehetasunak ere.

Irizten bada atal hori ez zaiola aplikagarria proiektuari, justifikazio-txostena erantsi beharko da.

### 1.7.– Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatzea.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak ingurumen-inpaktu kaltegarri nagusiak murrizteko, desgerrarazteko edo konpentsatzeko proposatutako neurriak azalduko ditu inguruneko elementu bakoitzerako. Espero diren inpaktuen garrantziaren arabera proposatu eta dimentsionatuko dira neurri horiek.

Babes- eta zuzenketa-neurrien proiektua behar bezain xeheki idatzi beharko da, ingurumena- ren babes- eta neurri horiek hartzea gomendagarri bihurtzen duten helburu espezifikoak beteko direla bermatzeko moduan. Era berean, proiektuaren aurrekontuan jaso beharko dira babes- eta konpentsazio-neurriei aurre egiteko behar diren partida guztiak.

Zehazki, informazio hau emango da, alde batera utzi gabe txosten honen aurreko ataletan gal- datutako analisien arabera proiektuan sartu behar diren zuzenketa-neurrien aplikazioa:

Batasunaren intereseko habitatak, bertako landaredia eta mehatxupeko flora eta fauna babes- teko neurriak.

– Ingurumen-inpaktuaren azterketan garatu egin beharko dira Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak 2024ko apirilaren 22ko txostenean, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak 2023ko maiatzaren 30eko txostenean eta Uraren Euskal Agentziak 2024ko maiatzaren 13ko txostenean eta 2021eko urtarrilaren 14ko ebazpenean jasotako neurriak.

– Bereziki, Batasunerako eta eskualderako interesekoak diren habitaten eta intereseko flora eta fauna espezieen gaineko eragina minimizatzeko neurriak proposatuko dira. Obra-plana identifikatutako espezie mehatxatuen presentziara egokitzea planteatuko da, eta, proiektuak proposatzen duen bezala, fauna-espezieen ugalketa-aldian jarduketak egitea saihestuko da.

– Abifaunak eta kiropteroek linearekin elektrokuzio- eta talka-gertakaririk izan ez dezaten, zuhaitzik gabeko zerrenda handitzeko aukera aprobetxatzea kontuan hartuko da, linea nahitaez bete beharreko abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuaren aginduetara ego- kitzeko; sustatzaileari dagokio horren erantzukizuna.

– Landarediaren gaineko afekzioa murrizteko prebentzio-neurriak:

- Oro har, eta beharrezkoa bada, gune sentikorrenetan eta natura-balio handiena dutene- tan behinik behin, bideragarria den guztietan inausketa egingo da, eta behar-beharrezkoa denean soilik joko da mozketara, eta zuhaixka-geruza osorik kontserbatu behar da.
- Intereseko landaredi-masetan mozketak eta inausketak egiteko baldintzak: lehenta- suna emango zaio linean eragina izan dezaketen goiko adarrak soilik inausdari, geldialdi begetatiboan. Beharrezkoa bada, mozketak linearekin talka egiten duten aleetan baino ez da egingo.
- Kontserbatu beharreko zuhaitz aleak babestea.
- Hala badagokio, sarbideak halako moldez tratatzea, non gutxienera murriztuko baitira intereseko landare-formazioen gainazalaren gaineko eraginak.
- Debekatzea, edo ahal bezainbeste minimizatzea, landaredi naturala duten eremuak erabiltzea materialak eta makinak pilatzeko, etab.
- Eskuzko erreminta arinekin moztu edo inaustea, eta ez makina astunekin.

- Leheneratze-proiektu bat idatziko da, eraginpeko zuhaitzi autoktonoen eremuko konpen-trazioa aurreikusiko duena, gutxieneko 1:2 proportzioan (kendua:leheneratua).

Obra-aldian egungo sistema hidrologiko eta hidrogeologikoaren babeserako neurriak hartu beharko dira.

Kontuan hartu beharko dira xede hauetara bideratutako neurriak:

- Lurrazaleko ur-ibilguen eta haiekin lotutako landarediaren gainean zuzenean inpakturik ez eragitea.
- Metatze-guneak eta eremu osagarriak egoki kokatzea, zuzeneko nahiz isurketa bidezko inpakturik ez eragiteko ibai- eta akuifero-sisteman.
- Sortutako jariatze-uren eta istripuzko isurketen ondorioz, drainatze-sarerako finen edo kutsatzaileen isurketak minimizatzea. Istripuzko isurketak biltzeko material xurgatzailea izatea.

Ildo horretan, ingurumen-inpaktuaren azterketak Uraren Euskal Agentziaren (Ura) 2024ko maiatzaren 13ko txostenean eta Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2021eko urtarrilaren 14ko ebazpenean jasotako neurriak jaso beharko ditu.

Herritarrei sorrarazitako eraginak eta eragozpenak murrizteko neurriak.

- Atmosferaren kalitatea babestearekin lotutako neurriak –hautsen, zaraten, usainen sorrera barne–, eta lurraldearen irisgarritasunarekin eta iragazkortasunarekin lotutako beste era-gozpen batzuetatik babestearekin lotutakoak.
- Besteak beste, obrako lanen ordutegia, makinaren zirkulazio-abiadura eta abar mugatzea.

Hondakinak kudeatzeko neurriak.

Obra fasean zehar hondakinak kudeatzeko proposamena. Bilketa-, biltegitratze- eta trata-mendu-sistemen deskribapena.

Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak proiektuaren eraginpeko eremuan kokatutako kul-tura-ondarea babesteko behar diren neurriak jasoko ditu, eta arreta berezia jarriko die Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren araberrako interes arkeologikoko elemen-tuei –Mandañuko kokagunea (Gorliz) eta Burdin Gerrikoaren (Lemoiz) zati bat–.

Interes arkeologikoko elementu horien harira, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzen-daritzaren 2024ko apirilaren 15eko txostenean ezarritakoaren arabera, arkeologo bat egon beharko da, egingo diren lur-mugimenduen jarraipen eta kontrol arkeologikoa ziurtatuko duena, ondare-inpakturik egon ez dadin.

Eremuan kultura-intereseko ondasunak daudenez, beharrezkotzat jotzen da Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari kontsulta egitea proiektuari buruz, egoki iritzitako neurriak ezar ditzan, hala badagokio.

#### 1.8.– Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa bat eratuko da. Programa horren helburu nagusia izango da ingurumen-eraginaren azterketan finkatutako kalitate helburuak beteko direla bermatuko duen sis-tema bat ezartzea, bertan adierazitako jarraibideekin eta zuzenketa-neurriekin batera.

Programaren helburuak zehaztuko dira, eta, helburu bakoitzarentzat, bildu beharreko datuak, erabiliko den metodologia, neurketa-puntuak (puntu horiek zehazki kokatzeko egoera-planoa eta krokisa barne) eta neurketen maiztasuna ere adieraziko da.

Kalitate-helburuak legediak zehazten dituen muga-balioen edo balio-giden arabera izango dira, edota oro har onartutako azterketa teknikoen arabera. Hala ere, proiektuaren eraginpeko eremuaren berezitasunek eta ezaugarri zehatzek hala eskatzen badute, balio zorrotzagoak ezarri beharko dira beharrezkoak irizten zaien parametroetan.

Era berean, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eraginaren jarraipen egokia egin ahal izateko.

Proiektuari eta proiektuak ingurunean duen eraginari buruz jasotako datuen ondorioz beharrezkoak diren kontrolez gain, jarraian adieraziko diren kontrolak izan beharko ditu programak:

Obra-fasean, kontuan hartu beharko dira honako hauek:

- Obraren okupazio-mugak kontrolatzea.
- Intereseko landarediaren gaineko eraginak kontrolatzea.
- Mehatxupeko flora eta fauna espezieen gaineko afekzioen kontrola.
- Ur-ibilguen eta ur-bazterreko landarediaren gaineko afekzioen kontrola.
- Obrako jardunbide egokiak kontrolatzea, honako hauek saihesteko: hondakin-isurketak; lurzorua edo uren kutsadura, olio-jarioen ondorioz, eta eragozpenak sortzea, zarataren, hautsaren eta abarren ondorioz.
- Arkeologia-ondarearen gaineko eragina kontrolatzea.
- Aurreikusitako prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeke beste kontrol batzuk.

#### 1.9.– Ingurumen-inpaktuaren azterketaren laburpena.

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren eta haren ondorioen laburpen-dokumentu bat idatzi beharko da, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak VI. eranskinean ezarritako ezaugarriekin. Dokumentuan labur-labur eta edonork ulertzeko moduan bildu beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak saihesteko edo minimizatzeko proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea ere gomendatzen da, jendeari informazioa emateko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean izan diren zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

#### 2.– Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013, abenduaren 9koa) 39.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organuari bidaliko dio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoa, ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta sustatzaileak egindako oharren dokumentu bat, jasotako alegazio eta txostenetako ingurumen-edukiari eta kontuan hartzeke moduari dagokionez.

Ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/ingurumen-ebaluazioa/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu\\_def/adjuntos/2022\\_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA\\_v4.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf)